



“Impeachment” edo zentsura politikoa Iparramerikako Estatu Batuetan

(Impeachment in the United States of North America)



ESPARZA LEIBAR, Iñaki

Zuzenbide Prozesaleko irakasle titularra
Euskal Herriko Unibertsitatea. Zuzenbide Fakultatea.
Manuel de Lardizabal, 2
20009 Donostia
zipqulof@sc.ehu.es

BIBLID [1137-1951 (1999), 4; 5-12]

Azken hilabeteotan erakunde berezi bati buruzko informazio bolumen izugarri bat jaso eta jasan dugu; haren aipamen bakarrak auzi larrien eta krisi politiko sakonen hotsak dakarzkigu Iparramerikako Estatu Batuetako Presidentearen inguruan. *Impeachment*-ari buruz ari gara. Ondorengo orrialdeen helburu nagusia, oinarritzko eta beharrezkoa den informazioa eskaintzea da, hau da, aipatutako *impeachment* edo zentsuraren izaera (pribilegioa, inmunitatea...), funtsezko osagaiak, prozedura, etab.

Durante los últimos meses hemos recibido un enorme volumen de información acerca de una institución cuya sola mención evoca ya la existencia de serios problemas que se materializan en una grave crisis política en cuyo centro aparece el Presidente de los Estados Unidos de Norteamérica. Nos estamos refiriendo al *impeachment*. En las páginas que siguen pretendemos proporcionar la información básica necesaria para conocer su naturaleza (privilegio, inmunidad...), los elementos esenciales, el procedimiento, etc. de la censura o *impeachment*.

Nous avons reçu ces derniers mois une énorme quantité d'information au sujet d'une institution dont le nom évoque à lui seul l'existence de sérieux problèmes qui se matérialisent en une grave crise politique au centre de laquelle se trouve le président des Etats-Unis d'Amérique du Nord. Nous voulons parler de l'*impeachment*. Notre intention est de proportionner, dans les pages suivantes, l'information de base nécessaire à la connaissance de sa nature (privilege, immunité...), les éléments essentiels, la procédure, etc. de la censure, où *impeachment*.

-
1. Sarrera. 2. Subjektuak. Impeachment eta Botere Exekutiboak. Presidenteak. Epaiak federa-
lak. Legebiltzarkideak. 3. Objektua eta impeach-
mentaren ondorioak. 3.1. Destituzioa/Removal.
3.2. Inhabilitazio edo desgaikuntza/Disqualification.
4. Prozedura. Ordezkariei Kamera eta Senatua.
-

1. Sarrera¹

Estatu Batuetako Konstituzioan (hemendik aurrera USC/*United States Constitution*) aipatzen diren beste hainbeste erakunde bezala, impeachmentaren jatorria zuzenbide ingelesean dago. Hango ordenamenduan izan zuen funtzio berezia zera dugu: Erregearen Ministroen jarrera ikertu eta, dagokionean, sortzen edo deribatzen den erantzukizuna galdatu, erantzukizun politikoa eta baita penala. Prozeduraren subjektu aktiboa Legebiltzarra dugu. Horrelako kasuetan, Legebiltzarraren jarduerak izaera jurisdikzionala izango du².

Jatorrian, fiskalizazio tresna apropos bat dugu impeachmenta Legebiltzar-monarkia sistema politiko batean, Konstituzioagandik Botere Legegilearen eskuetan ezarritako tresna, Botere Exekutiboaren –kontrolagarri den zatia behintzat– jarduera aztertu eta, ebentualki, zentsuratzeko.

Gaur egun EEBBetako sistema politikoa presidentzialista dugu; beraz, aztertzen ari garen erakundea egoera berrira egokitu beharko da

–nahi eta nahi ez osagai jurisdikzionala galduko du– USCek erabakitzen duen botereen zatiketara, Botere Exekutibo indartsuegi bat galarazteko helburuarekin, kontrol gabeziaren ondorioz. Kontrolaren objektua estatuaren ordezkari nagusia duten pertsonen jardura izanen da. Botere Exekutiboaren barnean, impeachmenta bereziki Estatu Batuetako Presidenterantz helbideratuko da³.

USCaren egileek ez zuten sinesten hiritarren kontrol politikoa, lau urtero egikaritzen dena ordezkari politikoen gain eta hauteskunde demokratikoen bitartez, nahiko eraginkorra zenik. Horregatik asmatzen dute impeachmenta. Aipatutako tresna honek zilegituko du, teoriarik behintzat, erantzukizun politikoa galdakizuna edozein momentuan, hauteskunde mandatu indarrean dagoenean. Hori bai, baldintza edo ukanbehar aurrefinkatu batzuk eman ondoren.

Erantzukizun politikoa eskaera, zentsura⁴ edo impeachmentaren bitartez, argi bereiztu beharko dugu –nahiz eta elkar konexio, lotura edo eragin reflejoak izan– erantzukizun penalaren eskaeratik, guztiz independenteak dira eta. Aipatutako erantzukizun kriminalaren eskaera ez dagokie Botere Legegilearen organoei⁵.

USCak⁶ zenbait artikuluko partzialki erabiltzen ditu impeachment erakundearen diseinua eta izaera burutu eta azaltzeko. Adibidez, I.2 artikuluan, Ordezkariei Kameraren rola deskribatuz⁷. Ondoren, I.3 artikuluan, Senatuari dagokiona⁸. II.2

1. Aurkezten den lan hau burutzeko, ezinbestekoa izan da 1997ko apirilean, *Saint Louis University*-n, Estatu Batuetan, izandako egonaldia. Hango Zuzenbide Fakultateko/*School of Law* liburutegi, artxibo eta data baseetan lortutako materialak, eta Stephen C. THAMAN Dre. Jn.ak, *Assistant Professor of Law*, eskaintako laguntzari esker, helburuak lortzeko egoeran ezarri naute.
2. HASTELL, *Precedents of Proceedings in the House of Commons*, 1796. TAYLOR, *The Origin and Growth of the English Constitution*, 1889. Aurre aipamenak, FEERICK, J.D., *Impeaching Federal Judges: A Study of the Constitutional Provisions*, *Fordham Law Review*, 39. zbk., 1970, 5. or. Nahiz eta izen berdina izan, impeachment deritzan tresna edo erakundearen eduki, funtzio, prozedura etab., nahiko desberdinak dira Ingalaterran eta Estatu Batuetan. Vid., gai honetaz, orokorrean, CARLASSARE, L., *Responsabilità penale dell'Esecutivo e forma di governo. L'“impeachment” negli Stati Uniti*, *Rivista Trimestrale di Diritto Pubblico*, XX urtea, 1. zbk., 1970, 441-538 arteko orr.
3. Vid., COMITEE ON THE JUDICIARY HOUSE OF REPRESENTATIVES, *Constitutional grounds for presidential impeachment*, 93. Kongresua, 2. sesioa, U.S. Government Printing Office, Washington, 1974. Konstituzioarekiko aurre ezdabaidak eta impeachmentaren konfigurazioaren irizpide eta iritziak, vid., SMITH, A.J., *Federal Judicial Impeachment: Defining Process Due*, *Hastings Law Journal*, 46. zbk., 1995, 4-7 bitarteko orr.. (Lexis-Nexis, data basean lortua). Azkenez, Vid., orokorrean, CARLASSARE, L., *Responsabilità penale dell'Esecutivo e forma di governo. L'“impeachment” negli Stati Uniti*, op. cit.
4. Hemendik aurrera, espresio eta estilo beharregatik, sinonimo bezala erabiliko ditugu impeachment eta zentsura terminoak.
5. Impeachment eta prozesu penalaren arteko loturak aztertuz, vid., BLACK, CH.L., Jr., *Impeachment. A handbook*, Yale University Press, New Haven (Conn.), 1974, 14-19 bitarteko orr.
6. Gaztelera egindako arau konstituzionalen itzulpen ofizialaren iturria, zera dugu: SERVICIO INFORMATIVO Y CULTURAL DE LOS ESTADOS UNIDOS DE AMERICA, *La Declaración de Independencia. La Constitución de los Estados Unidos de América*, 1985, han ez da “impeachment” terminoa aipatzen, eta ematen duten itzulpen ofizialak erantzukizunak/“responsabilidades oficiales”, dugu. Vid., ere, THE COMITEE ON FEDERAL LEGISLATION OF THE BAR ASSOCIATION OF THE CITY OF NEW YORK, *The Law of Presidential Impeachment*, Harrow Books, NY, 1974. Azkenez, vid., CARLASSARE, L., *Responsabilità penale dell'Esecutivo e forma di governo. L'“impeachment” negli Stati Uniti*, op. cit., 443 or.
7. 1. art. 2. sekz., 5 zbk., “La Cámara de Representantes elegirá su presidente y demás funcionarios y será la única facultada para declarar que hay lugar a proceder en los casos de responsabilidades oficiales/*The House of Representatives shall have the sole power of impeachment.*”
8. 1. art., 3. sekz., 6. zbk., “El Senado poseerá derecho exclusivo de juzgar sobre todas las acusaciones por responsabilidades oficiales/*sole power to try all impeachments.* Cuando se reúna con este objeto, sus miembros deberán prestar un juramento o protesta. Cuando se juzgue la conducta del Presidente de los EEUU, deberá presidir el Senado el Presidente del Tribunal Supremo/*Supreme Court.* Ninguna persona será condenada si no concurre el voto de dos tercios de los miembros presentes.” 7. zbk., “En los casos de responsabilidades oficiales/*impeachment*, el alcance de la resolución no irá más allá de la destitución/*removal* del cargo y la inhabilitación/*disqualification* para ocupar y disfrutar cualquier empleo honorífico, de confianza o remunerado, de los EEUU; pero el individuo condenado quedará sujeto, no obstante, a que se le acuse, enjuicie, juzgue y castigue con arreglo a derecho”. Bigarren zatian, 7. zbk., aipatzen dena, ondoren eta ebentualki eskagarri izango den erantzukizun penala da. Zentsuratua izan den subjektuaren erantzukizun kriminala.

artikuluaren, Presidente indultuaren ezinezkotasuna erabakitzen da impeachment affairetan⁹. II.4 artikulua, impeachmentaren subjektu pasiboak finkatuz¹⁰ (kasu honetan Botere Exekutiboari dagozkionak). III.1 artikulua, Botere Judizial barnean dauden subjektuen zentsura, aipatutako posibilitate hau Epaille Federal eta Estatuarre mugatzen da¹¹. III.2 artikulua, non espreski adierazten den impeachment prozeduraren erabilerak kanpoan uzten duela Zinpeko edo Juradoen bitarteko enjuiziamendua¹². Honek suposatuko du berme standarra apalagoa dela, edo gutxienez desberdina, benetako prozesu juridikzionaletan (Botere Judizialaren barne dauden organu juridikzionalen aurrean garatzen edo tramitatzen direnak) galdagarri denarekin konparatuz¹³.

Orain arte ikusitakoaren ondorioz eta laburpen gisa, esan dezakegu USCK impeachmenta, Botere Legegilearen eskuetan ezarritako tresna bat bezala antolatatu duela; haren bitartez Parlamentuak kontrolatuko ditu Botere Exekutibo eta Botere Judizial¹⁴ barnean dauden subjektu nagusien –kargu ikuspegitik– portaerak. Horrela, kasua iristen denean, antza duen edo pseudo-jurisdikzional esan dezakegun prozedura baten bitartez, dagokien erantzukizun politikoa eskatuko zaie¹⁵.

Dudarik gabe impeachmentak osagai politiko nabari bat du; USCaren egileak ondo konturatu ziren horretaz, eta aipatutako elementu hura kontuan hartuz, moldatu zuten prozedura, bereziki haren hasiera¹⁶. Beraz, potentzialki zentsura tresna izugarri arriskutsua dugu –bereziki arma politiko bezala, behin prezedente bat sortu ondoren–; horregatik impeachmentaren erabilera, federal mailan batez ere, oso mugatua izan da¹⁷.

Impeachmentari buruzko politikoen mentalitatea azaltzeko, benetan baliogarria dugu Gerald R. FORDEk esandako esaldia, errepublikanoen liderra zenean Ordezkarien Kameran, “*You don’t need facts or evidence to impeach the President, you need only votes/ez da gertakari edo frogarik behar Presidenteari erantzukizun politikoa eskatzeko, beharrezkoa den bakarra botoak dira*”.

Erakundearen potentzialitateak –ondorio politiko ikuspegitik aztertuz– beldurra sortarazi du operadore politiko eta juridikoen artean. Alderdi politikoen erabilera partidista arriskuaren eraginez akordio edo hitzarmen tazito bat burutu da impeachmenta ez erabiltzeko edukiarekin¹⁸.

9. 2. art., 2. sekz., 1. zbk., “El Presidente... estará facultado para suspender la ejecución de las sentencias y para conceder indultos tratándose de delitos contra los EEUU, excepto en los casos de acusación por responsabilidades oficiales/*except in cases of impeachment.*”
10. 2. art., 4. sekz., “El Presidente, el Vicepresidente y todos los funcionarios civiles de los EEUU serán separados de sus puestos, a través del impeachment, al ser acusados y declarados culpables de traición, cohecho u otros delitos y faltas graves/*treason, bribery, or other high crimes and misdemeanors.*”
11. 3. art., 1. sekz., “Los jueces, tanto del Tribunal Supremo como de los inferiores, continuarán en sus funciones mientras observen buena conducta...”. Materia hontaz, vid., ESPARZA LEIBAR, I., *Sobre el procedimiento de selección del personal jurisdiccional en los Estados Unidos de Norteamérica*, PJ, 36. zbk., 1994, 325 eta ondorengo orr.
12. 3. art., 2. sekz., 3. zbk., “Todos los delitos serán juzgados por medio de un jurado, excepto en los casos de acusación por responsabilidades oficiales/*The Trial of all Crimes, except in Cases of Impeachment, shall be by jury.*”
13. Adibidez, ez da beharrezkoa izango impeachmentaren subjektu pasiboaren presentzia Senatuaren Plenoak haren komeniari buruz ezdabaidatzen duen bitartean, vid., THE COMMITTEE ON FEDERAL LEGISLATION OF THE BAR ASSOCIATION OF THE CITY OF NEW YORK, *The Law of Presidential Impeachment*, op. cit.
14. Impeachment eta Epaille Federalen arteko harremanak aztertzeko, vid., SMITH, A.J., *Federal Judicial Impeachment: Defining Process Due*, op. cit., orokortasunak eta aurre prozedura, 7-14 bitarteko orr. Zuzenbide positiboaren ikuspegitik, vid., *Judicial Councils Reform and the Judicial Conduct and Disability Act 1980koa*. Prezedente edo aurrekari juridikzionalen artean, vid., Stephen Chandler Distritu Epaillearen kasua, *Chandler v. Judicial Council of the Tenth Circuit*, 398 U.S. 74, 86 (1970). Vid., ere, exekutiboaren funtzio mugatua aztertuz, PETERSON, T.D., *The role of the Executive Branch in the discipline and removal of Federal Judges*, University of Illinois Law Review, 809. zbk.
15. Impeachmentaren izaera juridikoari buruz –oso gai ezdabaidatua doktrina eta politikoen artean– argia emango digute ondorengo hitzek. Hauen bitartez impeachment prozedura deskribatzeko saio bat gauzatzen da “*Judicial in external form and ceremony, is political in spirit*” BROWN, *The impeachment*, CARLASSARE, L., zitatua, *Responsabilità penale dell’Esecutivo e forma di governo. L’ “impeachment” negli Stati Uniti*, op. cit., 534-535, orr.
16. Vid., SMITH, A.J., *Federal Judicial Impeachment: Defining Process Due*, op. cit., 22. or. Vid., politiko osagaiari buruz, McNUTT, G.M., *Formal and Functional Approaches to Separation of Powers: The Political Cost of Checks and Balances in Nixon v. United States and Morrison v. Olson*, George Mason Law Review, 2. zbk., 1995.
17. Vid., COMMITTEE ON THE JUDICIARY HOUSE OF REPRESENTATIVES, *Constitutional grounds for presidential impeachment*, op. cit. 1787 eta 1974 bitartean impeachment saioak, federal mailan, hamalau izan dira, kopuru horren barne hauek aipatu behar ditugu: 2 Presidente, Estatu Idazkari bat (Ministroa), Senadore bat eta 10 Federal Epaille (arteak Auzitegi Goreneko/*Supreme Court* kide bat). Hau da, gutxi gorabehera saio bat 13 urtero. Nazioaren Presidenteari dagokionez eta gaur egungo ikuspegitik, saio bat 70 urtero. Historian zehar eman diren saio guztien berri jasotzeko, 1970 arte, vid., CARLASSARE, L., *Responsabilità penale dell’Esecutivo e forma di governo. L’ “impeachment” negli Stati Uniti*, op. cit., 446-450 bitarteko orr. Kontuan hartu ere impeachmentari buruzko azalpen historikoa EEBBetan, FEERICK, J.D., *Impeaching Federal Judges: A Study of the Constitutional Provisions*, op. cit., 25-47 bitarteko orr.
18. Vid., THE COMMITTEE ON FEDERAL LEGISLATION OF THE BAR ASSOCIATION OF THE CITY OF NEW YORK, *The Law of Presidential Impeachment*, op. cit., 20-21 orr. Gerald R. Fordek esandakoa zehaztuz, “*An impeachable offense is whatever a majority of the House of Representatives considers it to be at a given moment in history; conviction results from whatever offense or offenses two-thirds of the Senate considers to be sufficiently serious to require removal of the accused from office*”, FEERICK, J.D., *Impeaching Federal Judges: A Study of the Constitutional Provisions*, op. cit., 2. or. Vid., ere, BRYCE J. *The American Commonwealth*, 1888, 283. or. Erakundearen erabilera arriskutsuak adieraziz. Vid., zentzu berean, SIMPSON, *Federal Impeachments*, University of Pennsylvania Law Review, 64. zbk., 1916, 812. or.

ESPARZA, I. “Impeachment” edo zentsura politikoa Iparramerikako Estatu Batuetan. *Eleria*. 4, 1999, 5-12

2. Subjektuak. Impeachment eta botere exekutiboa. Presidentea. Epaille federalak. Legebiltzarkideak

USCen egiten diren aipamenak kontuan hartuz, hauek izango dira impeachmentaren subjektu pasiboak sistema federalean: EEBBetako Presidentea, Presidenteordea, Epaille federalak¹⁹, eta, azkenez, Kongresuak sortutako karguak okupatzen dituzten pertsonak edo zuzenean Presidenteak izendatutakoak/*Civil Officers*²⁰.

Ondorengo orrialdeetan bakarrik Botere Exekutiboaz arduratuko gara, eta honen barnean bereziki Presidenteaz.

Exekutiboa osatzen duten kargu politiko eta gainontzeko funtzionarioek, zentsura arriskatuko dute haien jokia okerra denean modu objektibo, iraunkor eta larri batean (ez da beharrezkoa portaera kriminal tipikoa izatea)²¹.

Historian zehar, bi Presidente izan dira EEBBetan impeachment saio objektu. A. JOHNSON 1868an, bidegabeko erabakiak onartzeagatik, eta R. NIXON 1973an, justiziaren jarduera oztopatu eta zina hausteagatik, Watergate affairean²².

A. JOHNSONen kasuan, Senatuak, prozeduraren azken fasean, ez zituen –botu soil batengatik– zentsura oinarritzen zuten karguak onartu²³.

R. NIXONek dimisioaren bidea hautatu zuen impeachmenta hasi bezain pronto, prozedura etenaraziz. Estrategia honen ondorioz, Parlamentuak ez zituen karguak gauzatu, ezta, noski, auzia erabaki. Ondoren eta azkenez, G.

FORD Presidente berriak (NIXONekin Presidenteordea izandakoa), USCek ematen dion grazia eskubidea egikaritzuz ezabatu egin zuen, etorkizunari begira, haren erantzukizun kriminala galdatzeko edozein posibilitate²⁴.

Aipatu beharra dago gaur egun eman den EEBBetako Presidente baten aurka hirugarren zentsura saioa. W.J. CLINTONi leporatu zaio, hasiera batean, izaera sexuala duen delitu bat, Arkansas estatuko Gobernadore izan zen bitartean burutua²⁵. Honen ondorio nagusia zera izan da, zentsura prozedura oso bat jarraitu duela EEBBetako Parlamentuak Clinton Presidentearen aurka. Aipatutako egoera honek sakonki eta larri oztopatu du Parlamentuari dagokion jatorrizko funtzioa, hau da, legeak egitea. Eta urte beteko prozedura garatu ondoren, ekonomia aldetik benetan garestia eta zentzu guzietan kostu handikoa, Senatuak absolutuzio adierazpen bat eman du 1999ko otsailan²⁶.

Orain arte esandakoaren emaitza interesgarriena hau da: Impeachment erakundearen historia osoan ez da inoiz EEBBetako Presidentearekiko zentsura eman, eta benetan kopuru txiki batean beste funtzionarioekiko, bereziki Epaille federalak.

Egoera kontuan hartuz, ez da harrigarria izango operatzaile juridikoen iritzia impeachmentari buruz (behintzat orain artekoa), hau da, erlikia historiko bat, prozedura astun eta, zentzu guzietan, neketsuegia dela²⁷. Bestalde, ez dago argi zein den irtenbiderik hoberena, edo zentsura ez erabili erabat baztertuz, edo prezidente edo aurrekari bat sortu eta eratoritzen den ebaluaezinezko arriskua, ondorio politikoen ikuspegitik, jasan.

19. Epaille federalen kopurua 1990 urtean 752koa zen. Honela desglosatuak: 9 Auzitegi Goreneko Epaille, 168 Zirkuitu Epaille eta 575 Distritu edo Barruti Epaille. Gai honi buruz, vid., REHNQUIST/FITZPATRICK, *Politics and Impeachment. Grand Inquests: The Historic Impeachments of Justice Samuel Chase and President Andrew Johnson*, Suffolk University Law Review, 26. zbk., 1992.
20. *Civil Officers*, kontzeptuari buruz, vid., GERHARDT, M.J., *The federal impeachment process. A constitutional and historical analysis*, Princeton University Press, Princeton (N.J.) 1996, 75-81 bitarteko orr. Vid., ere, orokorrean subjektuei buruz, CARLASSARE, L., *Responsabilità penale dell'Esecutivo e forma di governo. L' "impeachment" negli Stati Uniti*, op. cit., 473-482 bitarteko orr.
21. Vid., LABOVITZ, J.R., *Presidential Impeachment*, Yale University Press, New Haven (Conn.), 1978, 133 or. Aipatutako jokia okerra, ingelesez *wrong* formulatzen dute. Vid., BLACK, CH.L. Jr., *Impeachment. A handbook*, op. cit., 37 or.
22. Lehenengo kasuaren inguruan, vid., DEWITT, D.M., *The Impeachment and Trial of Andrew Johnson*, 1903, birimpr., Russell & Russell, New York, 1967. Bigarrenari buruz, vid., AMERICAN CIVIL LIBERTIES UNION, *Why President Richard Nixon Should Be Impeached*, Public Affairs Press, Washington D.C. 1973. Baita, U.S. House. *Impeachment of Richard M. Nixon, President of the United States. 93rd Cong., 2d sess., 1974. H. Rep. 93-1305*.
23. Azken emaitza Senatuan hau dugu: 35 botu aldekoak eta 19 kontraokoak. Beharrezkoak ziren aldeko bi herenak, Presidentearen zentsura lortzeko, 36 botuk osatuko zuten. Prezedente arriskutsu bat sortzeko beldurra nabari agertu zen. Vid., zehazki, HINDS, *Hind's Precedents of the House of Representatives of the United States*, Washington 1907, 897-901 bitarteko orr. Baita, vid., CARLASSARE, L., *Responsabilità penale dell'Esecutivo e forma di governo. L' "impeachment" negli Stati Uniti*, op. cit., 534. or.
24. Vid., LABOVITZ, J.R., *Presidential Impeachment*, op. cit., 94 or. Baita, USC, 2. art., 2. sekz., 1. zbk., "El Presidente... estará facultado para conceder indultos tratándose de delitos contra los EEUU, excepto en los casos de acusación por responsabilidades oficiales/*except in cases of impeachment.*"
25. *William Jefferson Clinton v. Paula Corbin Jones* kasuan, Presidenteak absolutuzioa lortu zuen 1998ko apirilean emandako erresoluzio baten bitartez.
26. Kongresuaren jarrera, nahiz eta errepublikanoa izan gehiengoa (Clinton Presidente demokratikoa partiduaren burua dugu), zuhurra eta oso neurtua izan da, eta ez bakarrik kasu honetan. Enpirikoki frogatu daiteke azken urteotan izan den egoera edo posizio berdina impeachmentaren inguruan. Vid., GERHARDT, M.J., *The federal impeachment process. A constitutional and historical analysis*, op. cit., 55 eta ondorengo orr.
27. Vid., LABOVITZ, J.R., *Presidential Impeachment*, op. cit. Baita, vid., MCCONNELL M. *Reflections on the Senate's Role in the Judicial Impeachment Process and Proposals for Change*, op. cit., 19 or. Azkenez, zenbait Senadoreren iritzia adieraziz, S. J. Res. 113, 100th Cong., 1st Sess. (1987).

Botere Legegilearen kasuan, Parlamentuaren/*Congress* kideak (Ordezkariei Batzordea edo Kamera eta Senatua, Botere Legegilearen erakunde nagusiak) ez daude impeachmentaren disziplinar lotuak. Badago zigor prozedura apropos bat, eta haren bitartez Kamera bakoitzak bere kideei erantzukizun disziplinarioa galdutako die, eta, dagokionean, kargutik alboratuko ditu ere²⁸. Hau ez da baina impeachment era bat.

3. Objektua eta impeachmentaren ondorioak.

Zentsuraren jatorrizko objektua jokaeren/*Behaviour* azterketa dugu, aurreko orrialdeetan aipatutako subjektuen portaera. Ikerketa hau, eta ebentualki subjektuei dagokien erantzukizuna, funtzio publikoaren egikaritzari mugatuko zaio. Hau da, kasuz kasu erabaki beharko dena zera da, USCek zehazten duen delituen bat burutu den –traizio, eroskeria, beste larritasun bereziko delituak edota delitu arruntak– edo karguarekin adosgarri ez den jokaera bat gauzatu den²⁹.

Baina ez bakarrik tipifikaturik dauden jokaerak, baita ere delituak ez diren ekintzak, okerrak diren neurrian eta botere publikoaren irudia kaltetzen dutenez, zentsura objektu eta impeachment zio potentzial bihurtuko dira. Beraz, kriminalitate elementua, hau da, tipifikazioa, ez da zentsuraren presupositu edo ukanbearra³⁰.

Orokorrean aipatu diren jokaera zentsuragarri aukerak, azken finean, Kontzeptu juridiko zehazgabe bat osatzen dute. Egoera honen aurrean EEBBetako Legegileak ez du beharrezkoa den tipifikazioa, xehetasunak eskainiz, aurrera eraman nahi. Zehazgabe izaerak interpretazio politikoa bultzatzen du, elementu edo

osagai juridikoa, eta berak daraman ziurtasuna, ezabatuz³¹.

Impeachmentaren bitartez galdatzen den erantzukizun politikoa egintza propioetatik sortzen da, hau da, norberak burututako jokabidearen ondorioz. Ez da beraz galdagarria erantzukizuna, menpeko norbaitek, bere kabuz, burututako egintza batengatik³².

Impeachment erakundeak ez da prozesu penal arruntaren ordezkari, eta zentsuraren bitartez fiskalizatu egiten den jokaerak ez du beti ondorio gisa akzio penalaren egikaritzaren izango. Badaude beraz, eta nahiko ugariak dira gainera, delitu ez diren USCaren kontrako portaerak³³.

Impeachmentaren helburu nagusi eta propioa, erantzukizun politikoen zehaztapena eta galdapena da. Beraz, gauza desberdina dugu ebentualki egintza berberengatik sortutako den erantzukizun penala; azken hau zehaztu eta galdatzeko, ezinbestekoa izango dugu prozesu penalaren ildoak jarraitzea³⁴.

Zentsuraren jatorrizko ondorioak –prozedura aurrera jarraitu eta zentzu horretan (zentsura) erabakitzen denean; badirudi, izaera ikuspegitik, “santzio politikoa-diziplinario” bat dela³⁵– bi izan daitezke:

3.1. Kargutik banantzea edo destituzioa/*Removal*, subjektuak aurretik dimititu ez badu

EEBBetan zentsura prozeduraren tramitazioak ez darama arretoa edo kautela neurririk, eta bereziki ez du kargu publiko egikaritzaren esekitzea suposatuko. Hau da, impeachmentaren subjektu pasiboak jarraituko du dagozkion funtzioen egikaritzarekin, zentsura

28. Vid., GERHARDT, M.J., *The federal impeachment process. A constitutional and historical analysis*, op. cit., 75-81 bitarteko orr. USCen 1. art., 5. sekz., 2. zbk., zera xedatzen du “Cada Cámara puede elaborar su reglamento interior, castigar a sus miembros cuando se conduzcan indebidamente y expulsarlos de su seno con el asentimiento de las dos terceras partes”.

29. Vid., BLACK, CH.L., Jr., *Impeachment. A handbook*, op. cit., 33 eta ondorengo orr. Delitu larriak/*Treason, Bribery or other high Crimes*. Delitu arruntak/*Misdemeanors*. Impeachment objektuari buruz, Konstituzioaren egiten den formulazioaren arrazoiak (Konbentzio Konstituzionalean eztabaidatuak) e.a., vid., FEERICK, J.D., *Impeaching Federal Judges: A Study of the Constitutional Provisions*, op. cit., 47-58 bitarteko orr. Baita, CARLASSARE, L., *Responsabilità penale dell'Esecutivo e forma di governo. L' "impeachment" negli Stati Uniti*, op. cit., 483 eta ondorengo orr.

30. Vid., SMITH, A.J., *Federal Judicial Impeachment: Defining Process Due*, op. cit., 2. or. Baita, BERGER, R., *Impeachment: The constitutional problems*, Harvard University Press, Cambridge (Mass.) 1973, 58. or. Eta, FEERICK, J.D., *Impeaching Federal Judges: A Study of the Constitutional Provisions*, op. cit., 58. or. Azkenez, vid., GERHARDT, M.J., *The federal impeachment process. A constitutional and historical analysis*, op. cit., 50. or. Kriminala ez den portaera mugatzeko irizpideak, vid., COMITEE ON THE JUDICIARY HOUSE OF REPRESENTATIVES, *Constitutional grounds for presidential impeachment*, op. cit.

31. Vid., COMITEE ON THE JUDICIARY HOUSE OF REPRESENTATIVES, *Constitutional grounds for presidential impeachment*, op. cit.


32. Vid., BLACK, CH.L., Jr., *Impeachment. A handbook*, op. cit., 46 eta 47 orr. Salbuespenak egon daitezke zenbait kasu berezitan.

33. Vid., BLACK, CH.L., Jr., *Impeachment. A handbook*, op. cit., 33 eta ondorengo orr.

34. Vid., BLACK, CH.L., Jr., *Impeachment. A handbook*, op. cit., 37 orr.

35. Vid., CARLASSARE, L., *Responsabilità penale dell'Esecutivo e forma di governo. L' "impeachment" negli Stati Uniti*, op. cit., 467 orr.

ESPARZA, I. "Impeachment" edo zentsura politikoa Iparramerikako Estatu Batuetan. *Eleria*. 4, 1999, 5-12



1. Bill Clinton, Estatu Batuetako presidentea, bere emaztearekin.

–prozeduraren bukaeran emango den erresoluzio formal baten bitartez– erabaki arte.

Ez du garrantzirik izango aurrez edo batera eta objektu berdinarekin, prozesu penal bat tramitatzeak. Nahiz eta aipatutako prozesuaren emaitza kondena epai bat izan. Impeachment prozedura dugu zentsuragarri diren subjektuen destituzioa lortzeko tresna bakarra. Hala, posible da honelako egoera zentzugabe bat ematea: Epaille federal bat, eroskeria delitu batengatik kondenatu ondoren espetxean izatea, dagokion soldata kobratzen impeachment prozedura erabaki arte³⁶.

3.2. Etorkizunean kargu publikoak egikaritzeko inhabilitazioa edo desgaiakuntza/Disqualification

Biak, destituzioa eta inhabilitazioa, ez dira beti eta nahi eta nahi ez elkarrekin eman behar, honek esan nahi du normaltzat hartu beharko dugula kasu zehatz batean eragin bakar bat, edozein, ematea, edo baita, ondorio biak³⁷.

Ebentualki, impeachmentaren eraginez, eta posible izango da objektu berberarekin, akusazio/*Indictment* bat sor daiteke –normalean, EEBBetan, Ministerio Fiskalak/*Prosecutor* bultzatua– erantzukizun kriminala galdatzeko helburuarekin. Hau da, prozesu penalarri hasiera emango zaio. Nahiz eta zigor epaia erabaki, honek ez du zigor bikoitz/*Double jeopardy* bat suposatuko, nahiz eta egintzak berdinak izan. Ez da beraz *ne bis in idem* printzipioa urratuko³⁸.

Alderantziz ere, prozesu penal baten eragina impeachment prozedura izan daiteke, baina ez da kausa-ondorio harremanaren eragina izan behar. Beraz, ez da kontuan hartuko prozesu penalaren emaitza, erresoluzioaren edukia

36. Hau da Robert COLLINS Epaille federalaren kasua, eta ez da adibide bakarra.

37. Art. 3. sekz., 7. zbk., USC. "En los casos de responsabilidades oficiales, el alcance de la sentencia no irá más allá de la destitución del cargo y la inhabilitación para ocupar y disfrutar cualquier empleo honorífico, de confianza o remunerado, de los EEUU; pero el individuo condenado quedará sujeto, no obstante, a que se le acuse, enjuicie, juzgue y castigue con arreglo a derecho".

38. Vid., GERHARDT, M.J., *The federal impeachment process. A constitutional and historical analysis*, op. cit., 21 or. Baita, vid., BERGER, R., *Impeachment: The constitutional problems*, op. cit., 79-80 orr.

39. Vid., Walter L. NIXON federal Epaillearen kasua.

–gaitzespena edo absoluzioa– zentsura prozedurari hasiera emateko, prozesu penalean akusatua izan den pertsonaren aurka³⁹.

4. Prozedura. Ordezkarien Kamera eta Senatua

Erakundearen ondorio eta eragin potentzialki sakon eta larriek –saio soilarenak ere– EEBBetako konstituzional sisteman (kontrol oreka sistema/*checks and balances*) aholkatzen dute aurreanalisi lasai eta xehetu bat, kasuz kasu, zentsuragarri diren edo halako antza duten jarduerak sortzen direnean. Haren bitartez erabaki beharko da merezi duen ala ez impeachment erakundearen erabilera⁴⁰.

Kongresuaren/*The House* jarduerari, zentsura prozedurari dagokionez, neurri batean jurisdikzional izaera eman nahi zaio, hau da, organu jurisdikzional “sui generis” baten helburua jarraituko du, ahalmen jurisdikzionala egikaritzu⁴¹.

Hau esan ondoren adierazi behar dugu impeachment erakundeak jarraitzen duen prozedurak ez dituela *Due Process of Law* klausulak galdatzen dituen berme guziak errespetatzen. Aipatutako klausulak benetako jardura jurisdikzionalaren neurria eta mugak ematen dizkigu, beraz, zentsura ez da prozesu jurisdikzional bat, beste zerbait baizik. Adibide adierazgarri batzuk emango ditugu. Publizitatea sakonki murriz daiteke, jurisdikzioaren aurrean ez bezala. Froga standarda, zalantza arrazoigarri baino areago/*beyond a reasonable doubt*, azpitik dator, beraz, ziurtasun maila apalagoa da. Jurado edo Zinpekoek ez dute parte hartuko; jurisdikzioaren aurrean juradoen partehartzea oinarritzko eskubide bat dugu. Ez da erresoluzioen motibazioa bermatzen, etab.⁴².

Bi prozedura desberdinak aztertu ondoren, haien bermeak, eragin eta ondorioak, adierazi beharko dugu jardura jurisdikzionala (hau da, prozesua) eta zentsura prozedura izaeraz desberdinak direla. Ez dute kausa-ondorio loturarik. Impeachment prozedurak ez du suposatzen ahalmen jurisdikzionalaren egikaritzea, eta lehen esan dugun bezala, nahiz eta jardura biak gauzatu (zentsura, erantzukizun politikoa erreklamatu eta prozesu penala, erantzukizun kriminala galdatu) egintza eta subjektu berdinen aurka, ez da *ne bis in idem* printzipioa bortxatuko⁴³.

Esan beharra dago ere, kasuz kasu aztertu beharko dugula –gai honek malgutasun neurri bat duelako– zehazki jakiteko “zer” eta “zenbat” prozesu diren bidezko edo galdagarri, supostu bakoitzean⁴⁴.

Subjektuak Presidentea edo Presidenteordea direnean, impeachment edo zentsura gauzatzeko jarraitu behar den prozedurari Ordezkarien Kamerak edo haren kideren batek hasiera emango dio –berez (ofizioz) edo beste norbaitek (subjektu edo erakunde, v. gr., Jurado Nagusiak edo estatuko Parlamentu batek) emandako informazioaren bitartez– zentsuragarri omen den jokaera detektatzen dutenean⁴⁵.

Arazoa sortu eta berehala, Ordezkarien Kamerak erabaki beharko du, bozkatu eta irizpide politikoak esleituz, komenigarria den ala ez zentsura prozedurari hasiera ematea⁴⁶. Eraitza aldekoa denean, Kongresuko Justizi Batzordeari dagokio formalizazioa. Hau da, ikerketa bat garatu beharko du eta haren emaitzaren ondorioz, positiboa denean, zentsuragarri diren ekintzen zerrenda bat prestatu beharko du/*articles of impeachment*. Eraitzak aztertu ondoren, batzordeak erabaki beharko du ere bai egoki edo komenigarria den zentsura prozedurarekin jarraitzea (hemen ere ez dira

40. Vid., SMITH, A.J., *Federal Judicial Impeachment: Defining Process Due*, op. cit., 22 eta ondorengo orr., han impeachment eta, USCKo 5. eta 14. emendakinetan arautzen den *Due Process of Law* edo bidezko prozesuaren arteko loturak eta inkompatibilitate edo bateraezintasunak aztertzen dira. Halere argi dago impeachmentaren eraginak subjektu pasiboaren ondarea uki dezakeela, eta ondarea, bizia eta askatasunarekin batera/*life, liberty and property*, *Due Process of Law* klausulak babesten duen objektuetariko bat dugu. Baita, bidezko prozesuari buruz, ESPARZA LEIBAR, I., *El principio del proceso debido*, Bosch, Barcelona 1995.
41. Vid., BLACK, CH.L., Jr., *Impeachment. A handbook*, op. cit., 20 eta ondorengo orr. Vid., ere, CARLASSARE, L., *Responsabilità penale dell'Esecutivo e forma di governo. L' "impeachment" negli Stati Uniti*, op. cit., 444 eta ondorengo orr.
42. Vid., BLACK, CH. L., Jr., *Impeachment. A handbook*, op. cit., 20 eta ondorengo orr. Ebazpenen motibazioari buruz, vid., CARLASSARE, L., *Responsabilità penale dell'Esecutivo e forma di governo. L' "impeachment" negli Stati Uniti*, op. cit., 530 or. Zentsura prozeduraren izaerari dagokionez, vid., MILLER, M. B., *The Justiciability of Legislative Rules and the Political Question Doctrine*, California Law Review, 78, 1990, 1341-1374 bitarteko orr.
43. Vid., BERGER, R., *Impeachment: The constitutional problems*, op. cit., 79-80 orr. Gaiaren mugak ezarri, vid., *Hastings v. United States*, 802 F. Supp. 490, 505 (D.D.C. 1992).
44. Vid., SMITH, A.J., *Federal Judicial Impeachment: Defining Process Due*, op. cit., 24-39 bitarteko orr.
45. Epaila federalen kasuan, impeachment prozedurak aldaera nabariak daramatza, vid., *Judicial Councils Reform and Judicial Conduct and Disability Act*, 28 U.S.C. 331, 332, 372, 604 (1980), eta, 28 U.S.C. 372 (c) (1) (1993). Organu berri eta berezi batzuk sortzen dira prozedura bultzatzeko, Batzorde Judiziala/*Judicial Council*, EEBBetako Kontseilu Judiziala/*Judicial Conference of the United States*. Prozedura honen zehaztasunak ezagutzeko, vid., SMITH, A.J., *Federal Judicial Impeachment: Defining Process Due*, op. cit., 9-12 bitarteko orr.
46. Vid., CARLASSARE, L., *Responsabilità penale dell'Esecutivo e forma di governo. L' "impeachment" negli Stati Uniti*, op. cit., 458-459 orr.
47. Vid., SMITH, A.J., *Federal Judicial Impeachment: Defining Process Due*, op. cit., 12. or.

ESPARZA, I. "Impeachment" edo zentsura politikoa Iparramerikako Estatu Batuetan. *Eleria*. 4, 1999, 5-12



irizpide juridikoak gehiegi hartzen kontuan). Justizi Batzordeak egindako proposamena, exekutiboa izan dadin, Ordezkarien Kameraren Plenoak baieztatu edo berretsi beharko du⁴⁷.

Presidente edo Presidenteordearen aurka zentsura prozedurari hasiera emateko, badago beste, nahiko berezi eta berria den, modu bat; errealitateak erakutsi digunez eragin handikoa. Prozedura berezi hau martxan jartzeko hiru Epaila federalez osatutako kolejio batek Fiskal berezi bat izendatuko du, instrukzio zehatz eta singular bat bultzatzeko. Ikerketaren emaitza kalifikatuak Ordezkarien Kameraren aurrean azalduko ditu. Hemendik aurrera zentsurak prozedura arrunta jarraituko du⁴⁸.

Ordezkarien Kamerak zentsura prozedura jarraitzea erabakitzen duenean, gehiengoaren euskarriarekin, Senatuari bidaliko zaio txostena. Goi Kameran jarraituko den prozedurak bi osagai nagusi ditu: bata, aurre prestakuntza, batzorde/*Committee* berezi batek burutua⁴⁹. Ondoren, eta aipatutako bigarren elementua, erabakia dugu. Senatuaren Plenoak impeachment edo zentsura erabakiko du, subjektu pasiboa –hau ez da zabaltasun osoarekin ezta beti beharrezkoa– entzun ondoren; hau da, kontraesana bermatuz. Auzitegi Gorenaren/*Supreme Court* Presidentearen lehendakaritzaren pean⁵⁰.

Senatuak, esan bezala osatua, “organu jurisdikzional” izaerarekin, karguak banan-banan aztertuko ditu, jokaerak epaituko eta impeachmentaren egokitasuna eta haren ondorio zehatzak erabakiko. Senatuak impeachmenta onartzeko bi herengo gehiengo kualifikatuaren beharra izango du⁵¹. Hau guztia “quasi jurisdikzional” omen den ahalmen bat egikaritzuz⁵².

Senatuak zentsurari buruz egindako balorazioa ez da irizpide juridikoetan oinarrituko, Goi Kamera, itxuraz aparte, benetako organu jurisdikzional bat ez delako. Beraz, Batzordeak eta bereziki Plenoak onartzen dituzten erabakien funtsean irizpide politikoak izango dira nagusi⁵³.

48. Aipatutako posibilitatearen oinarri juridikoa *Independent Counsel Act*-ek, 28 U.S.C. 591-599 (1988) ematen digu.

49. Senatu batzordeen inguruan, vid., AUSLANDER, R., *Impeaching the Senate's Use of Trial Committees*, New York University Law Review, 67, 1992, 68-107 bitarteko orr.

50. Auzitegi Gorenaren Presidenteak Senatuaren Lehendakaritza eskuratuko du, zentsuraren subjektu pasiboa EEBBetako Presidentea denean. Neurri honen bitartez bermatu nahi da, bereziki, inpartzialitatea. Kontuan hartu behar dugu egoera aurruntetan, Senatuaren Presidentea EEBBetako Presidenteordea dela. Vid., CARLASSARE, L., *Responsabilità penale dell'Esecutivo e forma di governo. L' "impeachment" negli Stati Uniti*, op. cit., 463. or. Bestalde, kontuan hartu behar dugu ere, inpartzialitatea aztertzerakoan, Auzitegi Goreneko kide guztiak, Presidentea barne, nazioko Presidenteak, biziarteko, izendatzen dituela. Vid., BERGER, R., *Impeachment: The constitutional problems*, op. cit., 112 eta 113 orr. Auzitegi Gorenak, osotasunean kontsideratuz, ez du inongo eskuduntzarik impeachment arazoetan.

51. Vid., COMITEE ON THE JUDICIARY HOUSE OF REPRESENTATIVES, *Constitutional grounds for presidential impeachment*, op. cit. Gaur egun beharrezkoa den quoruma zentsura erabakitzeko, 51 Senadorekoa da. Vid., baita, CARLASSARE, L., *Responsabilità penale dell'Esecutivo e forma di governo. L' "impeachment" negli Stati Uniti*, op. cit., 457 eta 462 orr.

52. THE COMITEE ON FEDERAL LEGISLATION OF THE BAR ASSOCIATION OF THE CITY OF NEW YORK, *The Law of Presidential Impeachment*, op. cit., 43. or. Vid., ere, BLACK, CH.L., Jr., *Impeachment. A handbook*, op. cit., 6-14 bitarteko orr. Vid., azkenez, CARLASSARE, L., *Responsabilità penale dell'Esecutivo e forma di governo. L' "impeachment" negli Stati Uniti*, op. cit., 460. or.

53. Vid., LABOVITZ, J.R., *Presidential Impeachment*, op. cit.

ESPARZA, I. "Impeachment" edo zentsura politikoa Iparramerikako Estatu Batuetan. *Eleria*. 4, 1999, 5-12